

## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Madrildik dator notizia



UXUE APAOLAZA LARREA

Osogutxi ikusten zen jada “Antifaxista”, horrela, zuzenean, “Antifascista”, Madrilen, biseretan, kamisetetan. Eta begiratzen zitzaizen antifaxismoa nostalgia moduko bat balitz bezala (bisera bat, kamiseta bat), izan ahal balitz bezala. Eta orain loratu dira Madrilgo zentroan eta, beraz, eta, azkenean, eta, batez ere, komunikabideen zentroran, ez mamuak ikusten zituzten antifaxistak, mamuak berak baizik, mota guztietako faxistak. Nondik atera dira?

Ferrazean, PSOEn egoitzaren aurrean putomarciónek eta veteatupaisek ikuskizun pornografiko hori antzeztzen duten bitartean, Madrilen bertan, urteurren bat bete da isilago. Carlos Palominoren hilketarena. Metroan hil zuen faxista batek elkarretaratze arrazista bati aurre egitera zioala. Izan ere, auzoetan, norbait ari zen hain *demode* zegoen faxismoari aurre egiten, eta hargatik isilean ordaintzen (ikus Alfonso-kasua ere, bestela). Arazoak auzoetako migranteentzat zirenean, inor ez zen tertulietan asaldatzen. Madrilgo erdigunera joan behar izan dute, eta gorbatadunen bat izutu, batzuk “hori faxismoa da”, ohartzeko. “Hau eskandalua, hemen jokatuta egiten da!”

Irene Zugastik artikulu bat idatzi du *El Salto* hedabidean: “*Lo de Carlos*”. Eta, orain, faxistak denon bistara atera direnean, 2007an metroan hil zuten belaunaldi hura aldarrikatzen du. Orain ere, 2023an, badago bazterrean borrokatzen den Madril bat, auzoetan, argindarrrik gabe batzuetan (Cañada Real). Mamuen kontra. Gorbatadunen bat izutu arte, ez ditugu ikusiko komunikabideetan. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Euskara

Epaitegien eraso euskarafoboei erantzuteko protokoloa aurkeztu du Euskalgintzaren Kontseiluak: “Oldarraldiaren aurrean hizkuntza-eskubideak babesteko Protokoloa”. Erasoen aurrean “antolatuta eta saretzeko balioko du”, adierazi du Kontseiluak.

## Laborantza

Lurrarna egin dute joan den asteburuan, Iparraldeko laborantza iraukorren saloia. Aurten, emakumeak izan dira protagonistak: “Emazteek laborantzian leku garrantzitsua izanik ere, aintzietan gizonen itzalean izan dira”.

## Komunikazioa

35. urteurrena ospatu zuen Euskalerria Irratiak, joan den astean. 1988ko azaroaren 7an egin zuen lehen emisioa Iruñerriko irratia eta hasieratik izan ditu ardatz euskara eta komunitatea. Irratiak aurki “pauso garrantzitsua” emango dutela iragarri dute.